



lazko txupinazokoa da ondoko irudia. Gaurkoa 20:00etan da. I. Saiz

Trintxerpera egingo du jauzia festen lekukoak

MIKEL DEL VAL GARCIA

Gaur (ostirala) arratsaldean hasiko dira Pasaia udako laugarren festak, Trintxerpekoak. Donibaneko sanjoanen, sanpedroen eta sanferminen lekukoa hartuko dute Karmengo Amaren festek. Jai Batzordeak ahalegin berezia egin du aurten ere jai giroa Trintxerpeko plaza eta kale gehienetara iristeko.

Gaurko 20:00etako txupinazoaren aurretik hainbat jarduera dauden arren, festen hasierako ekitaldian joko du goia tenperaturak. Han, bes-

teak beste, protagonistek hartuko dute hitza: Arantxa Maneiro txupinerak, eta Azkueneko damek: Ariadna de Magalhaes, Chloe Torres eta Iria Duarte dira. Gainera, aipamen berezia jasoko du Sastakai txaranga nekaezinak, emakumeen danborradak erabaki duelako haiek izatea karmenetako omenduak.

Jai batzordeak lan handia egin du egitarauari forma eta mamia emateko. Hori eskertu nahi izan du, karmenen agurreko testuan, Iraitz Pazos Lapido Trintxerpeko alkateordeak: «Jai

batzordean edo kanpoan zuek egiten duzuen lana ezinbestekoa da, eta zuei esker, Trintxerpe are bizigarriagoa eta biziagoa da».

Gainera, mezu garbia zabaldu nahi izan du alkateordeak: «Jaietan aske izan nahi dugu». Hala, bakoitzak bere identitatea libreki adierazteko eskubidea duela adierazi du udal agintariak, «izan emakume, pertsona arrazializatu edo LGTBI+ kolektiboko kide. Inolako erasorik ez dugu onartuko». Beraz, bizi libre 2025eko karmenak. ■

GAURKO (OSTIRALA) EGITARAUA

- **16:00.** Haurrentzako jolasak Azkueneko pistetan.
- **17:30.** Erraldoiak eta buruhandiak Azkueneko pistetatik.
- **19:00.** Haurren txupinazoa eta holly jaia Gernika plazan.
- **19:15.** Festen aurkezpena alkateordetzan.
- **20:00.** Txupinazoa, banderen igoera eta kanpai iraulketa alkateordetzan. Jarraian, omenduentzako luntxa alkateordetzan. Ondoren, gizonen danborrada alkateordetzatik.
- **20:30.** Txistorra jatea Batzokian.
- **21:00.** Old Babies taldea Gudari plazan.
- **23:15.** Alargun Beltzak taldea Azkueneko parkean.
- **23:30.** Itzal erromeria Gudari plazan.
- **01:00.** DJ Hidalgo Serafin Esnaola plazan.



rk
aholkularitza asesoria
rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

Lana | Kontabilitatea
Fiskala | Finken Administrazioa

Egun handia da gaur (ostirala) Trintxerpen, Karmengo Jaiek eztanda egingo baitute. Suziria piztearekin batera, trintxerpetarrak sei eguneko festa giroan murgilduko dira. Jai batzordeak, barrutiko eragileek eta herritarrek prest dituzte aurtengo ospakizunak, eta gustu eta publiko guztiak aintzat hartu dituen programazioa ondu dute karmenez gozatze-ko. Jarduerak 16:00etan hasiko dira Azkueneko pistetan, haurrei begirako jolasak eta merienda antolatu baitituzte. 17:30ean, erraldoi eta buruhandiek kolorez beteko dituzte Trintxerpeko kaleak, Illunbeko txistulariek girotuta. 19:00etan haurren txupinazoa eta holly jaia jasoko ditu Gernika plazak, eta, 20:00etan, Arantxa Maneiro txupinerak suziria botako du barrutiko alkateordetzan. Bandera igo eta kanpaia-ak ere irauliko dira.

Suziria piztu baino lehen, Karmengo Jaia aurkezteko ekitaldia egingo da alkateordetzan, 19:15ean. Ekitaldi horretan Arantxa Maneiro txupinera, danborradek proposatutakoak eta Sofia Crespo azalaren egilea omendu eta zapiak lepoan jarriko dizkiete. Aurtengo emakumeen danborradak Trintxerpeko Sastakai Txaranga omenduko du, eta Ricardo Navas kideak aitortu du poztasunez jaso dutela omendu izatearen albiste: «Ez genuen espero errekonozimendua, baina poztasunez jaso dugu, gure lana aitortzen baitu. Emakumeen danborradarekin 25-30 urte inguru daramatzagu jotzen, eta pentsatzen dut pozik egongo direla gure lanarekin».

Hiru hamarkadako bidea

Sastakai 1993an lagun talde batek sortutako txaranga bat dela adierazi du Navasek. Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea osatu dute jada, eta Navasek txarangak emandako lehen pausoak oroitu ditu. Garai hartan txarangak jende helduz osatutakoak zirela baietsi du Sastakaiko kideak. Haiena, baina, 15 eta 19 urte bitarteko gazteek sortu zuten, helburu argi batekin: «Kaleko giroa gustatzen zitzaigun, eta beste txaranga batzuk ikusita, zerbait ezberdina eskaini nahi genuen erre-



Trintxerpeko Sastakai Txaranga egungo kideak. HITZA

Sastakai Txaranga, karmenak alaitzeko prest

MIKEL DEL VAL GARCIA

pertorio aldetik. Lagun talde bat ginen, eta horrela jarraitzen dugu, herrietako jaiak alaitzen. Txaranga gure arteko elkargune bat da».

Egun, 14 kidek osatzen dute Sastakai. Trintxerpe da haien etxea, bertan sortu ziren, eta Navasek aitortu du «gogo handiz» hartzen dituztela karmenak. Ohi bezala, emakumeen, gizonen, haurren, familien eta Azkueneko kideen danborradekin arituko dira Sastakaiko kideak. Horrez gain, haiek arduratuko dira larunbateko eta igandeko dianak girotzeaz. Karmenen zutabe garrantzitsu bihurtu da txaranga, eta hainbat jarduera musikaz beteko dituzte aurtengo ere.

Beren jarduna Trintxerpen abiatu bazuten ere, hirur hamarkadatan herriko jai eta jende mordoa ezagutu dutela baietsi du Navasek. Haien arteko giroa ere beti «oso ona» izan dela onartu du, eta txarangan aritzeak gauza asko ematen dizkiela nabarmendu du Sastakaiko kideak: «Oso giro polita ematen

digu txaranga, esperientzia bikaina da kalean musika egitea, eta jendearen erreakzioak zuzenean ikustea ikaragarria da. Jaiaren parte sentitzen zara, eta hori ere polita da».

Duela pare bat aste-edo Sastakain lehen urteetan aritu zen kideetako bat zendu zela jakinarazi du Navasek, eta hura gogoan izan nahi dutela adierazi du musikariak. ■

zure
taxia!



Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14



EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.oarsoagenda

SEI DANBORRADA DITUZTEN FESTAK

IA EGUNERO. Karmenen egun guztietan daude danborradak. Gaur (ostirala) da lehena, gizonena, txupinazoaren ondotik. Biharko bi: haurrena (12:00) eta Azkue-
nekoa (17:30). Igandean, berriz, emaku-
meenak (18:00, irudian) girotuko du ba-
rrutia; astelehenean familienak hartuko
ditu kaleak (20:00), eta 16an, Karmengo
Amaren egunean, marinelenak izango da
erreferentzia (17:00).



Trintxerpeko Jai Batzordea.



Trintxerpeko Jai Batzordea.

KUADRILLAK, ARANEDERREN JOLASEAN

HILAREN 12AN, 18:00ETAN. Urtero in-
dartzan ari den ekitaldia da kuadrillen
arteko jolasena. Aurten ere Aranederre-
ko pistetan elkartuko dira Trintxerpeko
gazteen taldeak, jolasen gozatzeko eta
elkar ezagutzeko. Behin jolasak bukatu-
ta erdigunera jaitsiko dira lagunarteak
karmenetako larunbatari kolore gehiago
ematera.

IGANDEA, IZERDITZEKO EGUNA

HILAREN 13AN, 09:25ETIK. Karmenetako
igandean, Trikaia antolatutako krosak.
09:25ean handbike kirolarien txanda izan-
go da, eta ondoren lasterkarien multzo
handia aterako da. Ibilbidea, honakoa:
Gudari plaza, Euskadi etorbidea, Correos,
Euskadi etorbidea, San Pedroko Puntak,
eta buelta Euskadi etorbideko helmugara;
Gernika plazan emango dituzte sariak.
Lasterketa nagusiaren ondoren haurrenak
hasiko dira, 10:30ean.



Trikaia

GARAGUNEKO KIDEEN EKARPENEA

HILAREN 15EAN, 12:00ETAN. Garagu-
ne zentroa Arrandegi kalean dago, eta
aniztasun intelektuala dutenen egune-
ko zentroa da. Bertan izaten direnek ere
karmenei ekarpena egin nahi diete, eta
aurreko urteetan bezala, tailer irekiak
egingo dituzte Serafin Esnaola plazan
hala nahi duten guztientzat hilaren 15eko
12:00etan. Festetan ere eragile izan nahi
dute zentroaren erabiltzaileek.



HITZA



HILAK 11, OSTIRALA

MUSIKA

Oiartzun. 18:00etan, Kontzejupean (udaletxearen azpialdean), Auntxa Trikitixa Eskolako ikasleen ikasturte bukaerako emanaldia.

Hondarribia. Auzoa Kultura Da jaialdia: 19:00etan, Gipuzkoa plazan, Musik & Arts; 12:00etan, Baluarte, Verde Prato; 23:00etan, Gipuzkoa plazan, Izaki Gardenak.

HITZALDIAK

Irun. 18:30ean, Emakumeen Etxean, Asun Casasolaren eta Emma Larretaren hitzaldia: *Indarkeria matxistatik bizirik irten direnen lekukotzak*.

BESTELAKOAK

Erreterria-Oreeta. Goizez (Torrekuan) eta arratsalde (Badalaben) Eraldaketarako teoriak zorrotzen: pentsamenduaren bidez praktikak berritzen Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroa. 10 euro. Informazio gehiago, hemen: oarsoaldea.hitza.eus.

FESTAK

Irun. Asteburuan Urdanibia Berri auzoan jaiak. Egitaraua, hemen: bidaso.hitza.eus.

Pasaia. Gaurtik eta hilaren 14ra arte, Trintxerpeko festak. Egitarau osoa, hemen: oarsoaldea.hitza.eus. Astekari honetan ere orrialde bereziak daude, 22tik 24ra artekoak.

HILAK 12, LARUNBATA

MUSIKA ETA DANTZA

Hondarribia. Auzoa Kultura Da jaialdia: 12:00etan, Arma Plazan, Amaiyuu Dantza Estudio; 13:00etan, Olazabal parkean, Baleazaleak taldearen eta Ostomila Txotxongilo Taldearen saioa; 14:00etan, Zumardian, Gazaren aldeko herri bazkaria; 17:00etan, Arma Plazan, Tio Teronen Semeak; 19:00etan, Baluarte, Eñaut Elorrieta; 21:00etan, Gipuzkoa plazan, Olaia Inziarte; 23:00etan, Kasino Zaharrean, Tatzers taldea.

ANTZERKIA

Oiartzun. 22:00etan, Landetxan, Oiar-



Oiasso Museoa

HEMEN DIRA ERROMATARREN EGUNAK

IRUN. Oiasso Museoa-ren Dies Oiassonis jaialdia martxan da. Asteburuan izango dira ekitaldi mardulenak. Adibidez, bihar (larunbata) 21:00etan eta 23:00etan Zirku Erromatarra izango da San Juan plazan (5 euro), eta etzi 12:00etan (4 euro). Larunbatean ere bai Navigium Isidis itsas prozesioa egingo dute Dunboako kanalaren inguruan (19:30). Bestelakoan, azokak, tailerrak, gastronomia esperientziak edo errekreazio historikoak ere badaude egitarauaren barruan. Ekitaldien zerrenda osoa, hemen: oiasso.com.

tzungo Gazte Sortzaileen (Orgasmo) Romeo ETA Julieta antzezlan. Sarrerak agortu egin dira.

BESTELAKOAK

Oiartzun. 10:00etan, Done Eztebe elizaren barrunbeak ezagutzeko bisita gidatua; 11:00etan, Arizmendienea ezagutzeko.

Irun. 10:30, 11:15, 12:00 eta 12:15ean, Junkal elizako kanpandorra ezagutzeko bisita gidatua. 1,50 euro.

Irun. 12:00etan (euskaraz) eta 11:00etan (Gaztelaniaz), Oiasso Museoko terma berriak ezagutzeko bisita gidatua. 5,75 euro.

HILAK 13, IGANDEA

MUSIKA

Hondarribia. 08:00etatik, Alde Zaharrean eta Mendelu auzoan, Hondarribiko Txistu Taldearen alborada.

Hondarribia. 19:00etan, Itsas Etxean, Euskal Herriko Gazte Orkestraren MMXXV emanaldia. 10 euro (18 urtetik beherakoek 5 euro).

BESTELAKOAK

Oiartzun. 10:00 eta 12:00etan (euskaraz), eta 11:00 eta 13:00etan (gaztelaniaz) Arizmendienea ezagutzeko bisita gidatua.

Oiartzun. 10:00etatik eta goiz osoan zehar, Arditurriko parketxean, Arditurri Eguna hainbat jarduerarekin. Egitaraua, hemen: oarsoaldea.hitza.eus.

Irun. 11:00etan, Txingudi Ekoetxean, bertako urak eta horien osagaiak ezagutzeko familientzako tailerra (6 urtetik gorakoentzat da).

Irun. 12:30ean (euskaraz) eta 11:00etan (gaztelaniaz), Oiasso Museotik, Irun erromatarra ezagutzeko bisita gidatua. 5,75 euro.

ERAKUSKETAK

Erreterria-Oreeta. Jantziaren Zentroan (Kapitanenea kalea, 6), garai batean modan izan ziren emakumeen jantziekin *Influencers* izeneko erakusketa dago jarrita irailaren 28ra arte. Larunbata 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 tarreetan da zabalik; igandetan 11:00etatik 14:00etara.